

2024a ere akordioen urtea da, langileen %58,3k baitauzkate hitzarmenak indarrean

- Hitzarmenak iraungita dituen biztanleria %4,6ra jaitسي da, duela urtebete baino bi puntu gutxiago.
- Maiatzaren 31ra arte, indarreko hitzarmenen batez besteko soldata-igoera %3,38koa da: %3,61ekoa EAEn negoziatutakoetan, eta %2,84koa EAEn eragina duten estatu-mailakoetan.

Bilbo, 2024ko uztailaren 16a. Joan den 2023an lortutako akordioei esker hein batean, eta akordio ia guztiak urte askotarako direlako, **Euskadiko negoziazio kolektiboaren egoera, 2024ko maiatzaren 31n, azken urteetako onena da: langileen %58,3k eguneratu dituzte beren hitzarmenak** –2012ko lan-erreforma indarrean jarri zenetik ehunekorik handiena–, eta %4,6k soilik dituzte iraungita beren hitzarmenak.

Datu horiek **Emilia Málaga Pérez-ek**, Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) presidentea, eman ditu gaur goizean Bilbon, "Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak EAEn 2023an" txostenaren aurkezpenean. Txosten hori eskuragarri dago jada Kontseiluaren webgunean (www.crl-lhk.eus).

Izan ere, gizarte-eragileek 2023an eta 2024ko lehen hilabete hauetan lortutako akordioei esker, iraungita zeuden hitzarmen batzuk berreskuratu dira, eta gure negoziazio-eremuak handitu dira. Horrela, **2024ko lehen bost hilabeteetan 41.494 langileri estaldura ematen dieten hitzarmenak sinatu dira**. Horien artean, EAEko sektore-eremuan, enplegu-kopuruagatik, Osakidetzako Garbiketako Enpresa Emakidadunena nabarmendu behar da, ia 2.600 langilerekin, eta Gipuzkoan, Bide Garbiketako eta Esku Hartze Sozialekoa, guztira ia 3.000 langileri ematen baitiete estaldura.

Iraungitako hitzarmenen egoerari dagokionez, adierazi behar da 2023an Gipuzkoako Sukaldaritza-arloko hitzarmena berreskuratu zela, eta 2024an, Bizkaian, Bizkaiko Larruaren eta Oinetako Merkataritzakoa, lurralde horretako Merkataritza Orokorraren Hitzarmenean sartu dena, eta Araban, Arabako Elikadurarena.

Bestalde, 2024ko maiatzera arte indarreko hitzarmenetan jasotako **batez besteko soldata-igoera** %3,38koa da, honela banatuta: %3,61koa EAEn negoziatutakoetan, eta %2,84koa EAEn eragina duten estatu-mailakoetan.

Gizarte Segurantzaren 1.019.773 pertsona afiliatu ziren ekainean gure Erkidegoan, hau da, **%1,7 gehiago 2023ko ekainarekin alderatuta**, eta %4,8 gehiago 2019ko ekainarekin alderatuta, pandemia agertu aurreko urtean.

Soldatapekoen banaketari dagokionez, kontratu-motaren arabera, 2024ko ekainean kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopurua aurreko urtekoaren antzekoa izan zen (%80,7), baina aldizkako langile finkoek (afiliazioaren %3,3 baino ez dira) eta lanaldi partzialeko kontratu mugagabea dutenek ere ez dute ia aldaketarik izan. Langabezia-tasa %7,9koa izan zen 2024ko lehen hiruhilekoan, 2009ko lehen hiruhilekoan baino handixeagoa (% 7,7).

2023aren itxiera

Gaur aurkeztu den LHKren txostenak EAEko egoera soziolaboralak 2023an izan duen bilakaeraren azterketa xehatua jasotzen du. EAEko ekonomia %1,8 hazi zen, eta urte arteko KPIaren %3,1eko igoerarekin eta enplegu-maila altuarekin amaitu zen urtea. Gainera, behin-behinekotasunaren tasak behera egin zuen eta langabezia %7,8ra jaitsi zen, 2009ko ehunekoaren azpitik, %8,1koa izan baitzen orduan.

EAEko negozioazio kolektiboak lan-kontratua duten soldatapekoen %92,4ri eragiten dio; horien artean, %55,8 gizonak dira, eta %44,2 emakumeak. Gutxi gorabehera, %7,6k -50.000 langile inguru- hitzarmen batek inoiz arautu ez dituen jardueretan lan egiten du; gehienak etxeko langileak dira, 28.000 inguru EAEn.

Bada ezaugarri bereizgarri bat: **garatzen den negozioazio kolektibo gehiena EAEn egiten da, eta sektoreko hitzarmenek garrantzi handia dute**. Zifretan, EAEko langileen %75ek (%74,6) sektoreko negozioazio kolektiboaren babesia dute, eta %25ek baino ez dute enpresa-hitzarmenen babesia. Era berean, akordio gehienak EAEn barruan negoziatzen dira, zehazki %71,9, eta langileen %28,1 estatu-mailan negoziatutako akordioek babesten dituzte; EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak esaten diegu horiei.

Emilia Málaga Pérez LHKko presidentek azpimarratu duenez, *"azken urteotan, gure negozioazio-eremuak nabarmen erreperatu dira, eta, horri esker, hitzarmenak iraungita zituzten langileen kopurua nabarmen murriztu da, eta EAEn negoziatutako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua handitu egin da"*.

Dena dela, eta negozioazio-eremu propio horiek berreskuratu diren arren, 2023aren amaieran, 2012ko erreformaren aurretik EAEn negoziatutako hitzarmen baten babespean zeuden 34.838 langile, orain estatu-mailako hitzarmen baten babespean daude.

Gainera, nahiz eta murrizketa handia gertatu den, 34.424 langile daude oraindik beren hitzarmena indargabetuta eta estaldurarik gabe; gehienek kasuan, EAEn negoziatutako hitzarmen bat iraungi delako.

EAEko negozioazio kolektiboan negozioazio-aldi luzeak izaten dira, eta urte askotarako akordioak lortzen dira. EAEn negoziatu diren eta 2023an indarrean dauden sektoreko hitzarmenetan, mahaia eratu eta akordioak sinatu arteko egunen batez bestekoa 20 hilabete baino gehixeagokoa da (**624 egun**), eta denbora hori ia bikoiztu egin zen 2006-2010 urteen artean. Era berean, **sinatzen diren akordio gehienak urte askotarako dira**. Horrela, langile guztien %91,5ek 3 urte edo gehiagorako akordioak sinatzen dituzte.

2023. urtearen amaieran, EAEko soldatapekoen %63,8k beren hitzarmenak eguneratuta zituzten, %30,6k akordioak luzapen-egoeran zituzten, eta %5,6 baino ez zeuden beren hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe. Ildo horretan, **gizarte-eragileek 2023an, batez ere sektore-eremuan, egindako jarduera handiari esker, ekitaldiaren itxieran emaitza onak izan ditugu.**

Urtearen hasieran langileen %27k zituzten hitzarmena indarrean. Bada, 2023 urtean zehar, soldatapekoen %36,8k, aurreko urtean baino ia bi aldiz gehiagok, akordioak berritu zituzten, eta urtearen amaieran langileen %63,8k zituzten hitzarmenak eguneratuta.

EAEen indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera %4,22koa izan zen, honela banakatuta: %4,59ko batez besteko igoera EAEen negoziatutako hitzarmenetan, eta %3,51ko igoera EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan.

Lanaldia

2023an aplikatu beharreko batez besteko lanaldia, indarrean dauden hitzarmenak eta luzapen-egoeran daudenak kontuan hartuta, ia 1.684 ordukoa izango litzateke, hau da, astean 37 ordu inguru, eta sektoreen arteko aldeak txikiak izango lirateke. Industrian eta eraikuntzan asteko lanaldia 37,5 ordu ingurukoa izango litzateke, eta zerbitzuen sektorean, berriz, 37 orduetik beherakoa.

Balizko arau-aldaketa baten testuinguruan, non urteko gehieneko lanaldia 40 ordukoa izatetik 37,5 ordukoa izatera igaroko litzatekeen, LHKn bildutako datuek adierazten dute 250.217 langile inguruk astean 37,5 orduetik gorako lanaldia hitzartuta izango luketela beren hitzarmenetan (1.712 ordu urtean), eta **horrek esan nahi du hitzarmena indarrean edo luzatuta duten langileen %43,5i, gutxi gorabehera, urteko lanaldia batez beste 43 ordu murriztuko litzaiekeela.**

Gatazkek izan duten bilakaerari dagokionez, merezi du azpimarratzea 2023an gutxiago izan zirela, eta gutxitze horren arrazoia izan liteke joan den urtean akordio garrantzitsuak lortu izana. EAEen baimendutako edo jakinarazitako enplegu-erregulazioko espedienteak (EEE) nabarmen murriztu ziren 2023an, nahiz eta 2024an gorakadatxoa sumatzen den.

PRENTSA KABINETEA

Irma Cerro Serna (MBN Comunicación)

irmacerro@grupombn.com

Tel.: 94 435 63 30 / 628 538 215